

## Alacantko naufragoak.

Alicante hiriatik gertu, De las Huertas itsasmuturaren itsasondarretan, harrizko bloke handi batzuk aurkitu ziren

Aurrez aldetik hondakinak datatzea utz zezan elementurik ez zegoen.

Mahuka xurgatzaile baten bitartez, kendu ziren harlanduen artetik mendeetan zehar bildutako Posidonia ostoak eta sedimentuak.

Honela aztarnategiaren azpiko mailaraino iritsi ahal izan zen, itsasontziaren kaskoaren hondakinak agertu ziren lekuraino.

Orduan, pecioaren erregistroaren txanda hasi zen. Horretarako armazoi arin bat instalatu zuten, neurriak hartu zituzten eta aurkitutako hondakinen argazkiak atera zituzten.

Ikerketa honi esker, hondakinak XV.garren mendeko ingurukoak direla jakin ahal izan dugu, itsasontziaren eraikuntzaren teknikak eta aurkitutako zeramika zatiek baieztatzen duten bezala.

Hondakin zahar baten informazioa hauskorra da. Peciotik ezer atera baino lehen, beharrezkoa da dena marraztea; kontu haundiz neurriak hartu, argazkiak atera eta ur azpian oharrak hartzea.

Kasu honetan, azterketatik atera ziren ondorioek zera zioten: segur aski, itsasontziak, harrobi hurbil bateko harriak garraiatzen zituen; Alicanteko bidea egiten zuen bitartean, bapateko haize aldaketa batek kostaldearen kontra bultzatu zuen itsasontzia

Pecio honetatik gertu, beste hondakin bat pausatzen da, posidoniaz mimetizatua, de las Huertas itsasmuturraren inguruko nabigazioa zein arriskutsua zen lekuko,

Azken honek zama berezia zekarren: arbelazko xafla meheak. Olatuen indarrez zatitu eta inguru guztietan barreiatu dira gaur egun.

Haien artean, kaskoaren parteak aurkitu zituzten XIX. garren mendeko pailebote baten hondakinak direla badirudi.

Hondakin hauei esker, beste ikerketa batzuk egin ahal izan dituzte, alegia, itsasoaren ekintza mekanikoaren eraginarena eta nola poseidoniak pecioak kolonizatzen dituenarena.